

guntzarik jasotzen bada, aldatu egingo da dirulaguntza esleitzeko hartutako ebazpena.

Hamaikagarrena.- Arau hausteak eta zigorrak

Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntza eta Transferentzietan buruzko foru arautegian eta azaroaren 17ko 38/2003 Legean (Dirulaguntzen Lege Orokorrean) xedatutakoari jarraituko zaio.

Hamabigarrena.- Arau osagarriak.

Arau haueetan jasotzen ez den guztian, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntza eta Transferentzietan buruzko foru arautegian, azaroaren 17ko 38/2003 Legean (Dirulaguntzen Lege Orokorrean) eta Lege horren erregelamendua onartu zuen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan xedatutakoari jarraituko zaio.

### Foru Aginduak

#### TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

8377

**754/2008 FORU AGINDUA, abenduaren 5koa. Honen bidez, behin betiko onarpena ematen zaio Mañuetako udal planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espedienteari. Espedientea Mañuetako 3 poligonoko 270 lurzatiari dagokio.**

##### I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- Mañuetako Udalak, 2008ko otsailaren 27an, udal planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espedienteari (3. poligonoko 270 lurzatia) hasierako onarpena ematea erabaki zuen, baita espediente hori hilabetez jendaurrean jartzea ere. Horretarako, iragarki bana argitaratu zen 2008ko martxoaren 17ko ALHAOn (33 zenbakia), 2008ko martxoaren 11ko El Correo egunkarian eta udaletxeko iragarki taulan.

Bigarrena.- Espedientea aztergai egon zen bitartean, ez zen alegaziorik aurkeztu. Beraz, udalak, 2008ko maiatzaren 14ko bilkuran, espedienteari behin-behineko onarpena ematea eta, behin betiko onarpena eman diezaioten, Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordera bidaltzea erabaki zuen.

Hirugarrena.- Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legeak 91.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeko Planeamendu Atalak aldeko iritzia agertu zuen uztailaren 17ko 5/2008 bilkuran.

Laugarrena.- Udalak Arabako Foru Aldundiari bidali zion espedientea (sarrera eguna: 2008ko urriaren 7a), hala bazegokion, behin betiko onar ezan.

Bosgarrena.- Abenduaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren 155/99 Foru Dekretuak agindutakoa betetz, Arabako Hirigintza Batzordeak azaroaren 28ko 7/2008 bilkuran aztertu zuen espediente hori.

##### II.- OINARRIAK

Lehenengoa.- Mañuetako Udalak Planeamendurako sustatu duen aldaketa puntual honek helburu bikoitza du; batetik, Mañuetako 3. poligonoko 270 zenbakiko lurzatia ekipamendurako erabiltzeko aukerak handitu nahi ditu. Horretarako, arau subsidiarioek egun ematen dioten "Irakaskuntzarako Komunitate Ekipamenduko Sistema Orokorren" kalifikazioa "Irakaskuntzako Komunitate Ekipamendurako eta Erabilera Askotarako eta Biltegiarako Sistema Orokorren" kalifikazio berrira zabaltzeko nahi du.

Aipatutako lurzatiaren (708,76 m<sup>2</sup>) ikastola bat dago.

Eraikuntza erabilera hau aurrefabrikatutako hiru etxolatan gauzatzen da. Etxola horiek kontserbazio egoera txarrean daude, erantsitako argazkietan ikus daitekeen bezala, eta udal arkitekto aholkulari Luis Ignacio Hernándezek bere 2007ko abenduaren 31ko txostenetan ondorioztatzen duenaren arabera:

privada, nacional o internacional, dará lugar a la modificación de la resolución de concesión.

Undécima - Infracciones y sanciones.

Se estará a lo dispuesto en normativa foral de subvenciones y transferencias del Territorio Histórico de Álava y en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Décimosegunda - Aplicación supletoria.

En lo no previsto en estas bases se estará a lo dispuesto en la normativa foral de subvenciones y transferencias del Territorio Histórico de Álava, en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la anterior Ley.

### Órdenes Forales

#### DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

8377

**ORDEN FORAL 754/2008, de 5 de diciembre, de aprobación definitiva del expediente de modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Baños de Ebro, referida a la parcela 270 del polígono 3.**

##### I.- ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 27 de febrero de 2008, el Ayuntamiento de Baños de Ebro acordó aprobar inicialmente la modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento referida a la parcela 270 del polígono 3, así como someter el expediente a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncio en el BOTHA nº 33 de 17 de marzo de 2008, en el periódico El Correo del día 11 de marzo de 2008 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo.- Durante el período de información pública no fue presentada ninguna alegación, procediendo el Ayuntamiento, en sesión del día 14 de mayo de 2008 a aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.

Tercero.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 91.2 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, fue informado por la Sección de Planeamiento de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco en su sesión 5/2008, de fecha 17 de julio.

Cuarto.- El Ayuntamiento remitió el expediente a la Diputación Foral de Álava, para su aprobación definitiva si procediese, donde tuvo entrada el día 7 de octubre de 2008.

Quinto.- En cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados núm. 155/99, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su Sesión 7/2008, de 28 de noviembre.

##### II.- FUNDAMENTOS

Primero.- La presente modificación puntual de planeamiento, promovida por el Ayuntamiento de Baños de Ebro tiene un doble objetivo; por un lado pretende ampliar las posibilidades de uso equipamental de la parcela nº 270 del polígono 3 de Baños de Ebro, ampliando la calificación actual de "Sistema General de Equipamiento Comunitario Docente" que le otorgan las Normas Subsidiarias a la nueva de "Sistema General de Equipamiento Comunitario Docente y de Usos múltiples y Almacén".

En la parcela citada, que posee una superficie de 708,76 m<sup>2</sup> se halla ubicada una ikastola.

Este uso edificatorio se concreta en tres casetas prefabricadas, en deficiente estado de conservación, tal y como se aprecia en las fotografías adjuntas y, como concluye el arquitecto asesor municipal, Luis Ignacio Hernández en su informe de 31 de diciembre de 2007:

“Mañuetako udalerrian ikastolarako erabiltzen den eraikinak ez ditu betetzen hezkuntza zentro bati eskatzen zaizkion segurtasun, funtzionalitate eta zerbitzuko gutxienezko baldintzak”.

Udalak, errealitate hau ikusirik, oin berriko eraikuntza bat eraiki nahi du egun egoera eskasean dagoen eraikina ordeztzeko eta irakas-kuntzako jarduerari eta udalerriko beste behar batzuei, alegia, gizarte, kultura eta aisialdi premiei era egokian erantzun ahal izateko, planeamenduak ematen dion eraikigarritasuna (1,20 m<sup>2</sup>c/m<sup>2</sup>) agortuz. Gainera, garrantzi txiki biko bigarren aldaketa bat egin nahi da, alegia, Planeamenduko Arau Subsidiarioetako idazkeran egin zen akats grafikoa zuzentzea. Hona:

2. poligonoko 522 lurzatiaren ondoan 13.05 metro koadroko berdegune bat dago. Baina, benetan, bizitegiatarako (hiri lurzorua) lurzorua kalifikazioa izan beharko lukeen area bat da OR-1 ordenantzan, eta horixe proposatzen du, hain zuzen, aldaketak.

Bigarrena.- Nahiz eta ekipamenduetarako erabilerak zabaltzeko udalaren nahia egokia den hirigintza ikuspegitik, adierazi behar da irakaskuntza ekipamenduko egungo lurzatiaren izan beharreko erabilerak zabaltzea ikastola bat jartzeko sektoreko arauen aurka egon daitekeela (2008-04-10eko Agindua eta 215/2004 Dekretua, EAEn haur eskolek bete beharreko gutxienezko baldintzak ezartzen duten 2008-04-10eko Agindua eta 215/2004 Dekretua, eta arabide orokorreko ikastetxeek bete beharreko baldintzak zehazten dituen 1537/2003 Dekretua).

1537/2003 Dekretuak “Haur Hezkuntza eskaintzen duten ikastetxeen baldintzak eta baldintza materialak” izeneko 9. artikuluan, honakoa dio:

“Haur hezkuntza eskaintzen duten ikastetxeak hezkuntza erabilera baino ez duten lokaletan kokatu behar dira, eta kanpotik aparteko sarbidea izan behar dute...”

Hortaz, ikastola eta dagozkion instalazioak eta abar egiteko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren baimena beharrezko denez, gerta daiteke jarri nahi den biltegi erabilera ezinezko izatea, eta, hortaz, araz kanpo geratzea.

Hirugarrena.- Erabileren terminologiari dagokionez, beharrezkoa da ohartaraztea “biltegi” erabilerarekin Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen araudian “Ekoizpen ustiatetarekin edo merkataritza-ekin lotutako biltegiak” adierazi nahi dela; hobeto da “Hiri edo administrazio ekipamenduak-zerbitzuak”.

Horregatik, neure esku ditudan ahalmenez baliatuz, hauxe

XEDATU DUT:

Lehenengo.- Behin betiko onartzea Mañuetako Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa puntualari buruzko espediente, 3. poligonoko 270 lurzatiari dagokiona.

Bigarrena.- Honako foru agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Hirugarrena.- Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, egoki iritzi eta abiaraz dezaketen beste edozein neurritz gain, ondoko errekursoak aurkeztu ahal izango dituzte:

- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
- Aukeran, eta aipatutako errekurtsua jarri aurretik, berraztertze errekurtsua ebazpena eman duen organoaren aurrean. Horretarako, hilabete izango da, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abenduaren 5a.- Toki Administrazioaren eta Lurralde Oreka Saileko foru diputatua, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

“El edificio destinado a ikastola en el municipio de Baños de Ebro no cumple con las condiciones mínimas de seguridad, funcionalidad y servicios que se le exigen a un centro educativo”.

El Ayuntamiento, a la vista de esta realidad, pretende la construcción de un edificio de nueva planta que sustituya a la edificación precaria actual y que, agotando la edificabilidad de 1,20 m<sup>2</sup>c/m<sup>2</sup> que le confiere el planeamiento, responda adecuadamente a la actividad docente y a otras necesidades del municipio (sociales, culturales y de ocio). Además se pretende una segunda modificación de muy escasa entidad cual es la corrección de un error gráfico que se produjo en la redacción de las Normas Subsidiarias de planeamiento, es la siguiente:

Junto a la parcela 522 del polígono 2 se sitúa una zona verde de 13.05 m<sup>2</sup>, cuando en realidad se trata de un área que debiera de estar calificada como suelo residencial (urbano), dentro de la ordenanza OR-1, que es justamente lo que plantea la modificación.

Segundo.- Si bien es correcta la pretensión municipal para la ampliación de usos de equipamiento desde un punto de vista urbanístico, no obstante conviene señalar que la ampliación de usos a ubicar en la parcela actual de equipamiento docente, pudiera chocar con la normativa sectorial para la implantación de una ikastola (Orden de 10/04/2008 y Decreto 215/2004 que establecen los requisitos mínimos de las escuelas infantiles en la C.A.P.V y Decreto 1537/2003 que fija los requisitos de los centros escolares de régimen general).

En el Decreto 1537/2003, concretamente en su artículo 9 “Instalaciones y condiciones materiales de los centros que imparten Educación Infantil” se dice:

“Los centros docentes que impartan Educación Infantil deberán ubicarse en locales de uso exclusivamente educativo, con acceso independiente desde el exterior...”

Por lo que, siendo necesaria la autorización por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación para la ubicación de la ikastola, con sus correspondientes instalaciones, etc... pudiera darse el caso de que el uso de almacén pretendido no fuese posible, quedando sin efecto, por tanto, su regulación desde la normativa.

Tercero.- En relación a la terminología de usos empleada es necesario advertir de que el uso “almacén” se refiere en la normativa de las Normas Subsidiarias de Planeamiento municipal a “almacenes vinculados a explotación productiva ó comercio” por lo que no sería apropiado en este caso; más bien el uso “equipamiento-servicios urbano o administrativo”.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Baños de Ebro, referida a la parcela 270 del polígono 3.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que se estime procedente:

- Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.
- Potestativamente, y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 5 de diciembre de 2008.- El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.